

Strike debt: jendeen zorrak bankuei erosiz zampaketa biluztu

Occupy Wall Street mugimenduak praktikan emaitza gutxi eskaini duela nork esan du? Zorpean itota dauden milioika herritarren kasuan, ez bakarrik zorpetzea den zapalketaren mekanismoak aireratu ditu, gainera Rolling Jubilee kanpainarekin erakutsi du jendeari pagatu ezinezko zorrak azkar eta erraz barkatzea posible litzatekeela.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

AEBETAKO 2.693 ETXETAN GUTUN bitxia jaso zuten 2013ko udazkenean. Honela zioen: “Hemendik aurrera ez zaude behartuta zure X kontua ordaintzera ez hasieran zeneukan hartze-kodunari, ez fakturen kobratzaileei eta ez beste inori”. Ez zen larri dagoenari muturrera barre egitea, benetako egia zen; gutuna jaso zutenei esaten zien *Rolling Jubilee* kanpainarekin egindako diru-bilketari esker haien zor atzeratuak beste batek erosi eta barkatzen zizkiela.

Rolling Jubilee euskaraz izango litzateke ‘jubileo ibiltaria’ edo ‘barkamena martxan’. Jubileoa eliza katolikoak deklaritzen du tarteka sinestunei bekatuak oro barkatzeko. Zorren alorrera ekarrita, barkamen orokorra, kitatze erraldoia. Occupy Wall Street mugimenduko liderretakoa izan den David Graeber antropologoak –Larrun batek bildu berri du bere pentsamenduaren mamia– azaldua du historian zehar aldika ugazaba eta buruzagiek zorpetuei beren zorrak barkatzen zizkietela, sistemak lehertu barik bizirauteko baldintza zelako.

Historian zehar... eta gaur ere bai, batzuei bederen. Berrikitan, 2008ko krisitzarrak eztanda eginik, zordun handiei *zulo* izugarriak barkatu, kitatu eta berdindu zaizkie,

esan nahi baita finantza erakunde boteretsuei. Aldiz, dio Graeberrek, nobedadea da lehenbiziko aldiz sistemak erabaki duela zordun txikiei ez barkatzea berenak, menturaz ziur daudelako oraingoan ez dela leherketa sozial kontrolaezinik gertatuko.

Kontuok aztertzeo Strike Debt (Zorra kolpatu edo Eman gogor zorrari, euskaraz) taldea mobilizatu zuen 2011n Occupyk. Strike Debt-ek abian jarri zuen *Rolling Jubilee* salaketa teorikoa gaindituz ikutzeo moduko emaitzak lortu asmoz. Horren emaitza izan da 2013ko udazkenean 2.693 familiari bidalitako gutuna: diru bilketa handia antolatuz 600.000 dolar eskuratuta, horietatik 400.000ekin erosi dituzte 14,7 milioi dolarreko zorrak, jendeak gaixotasunengatik edo ikasketarako hartu eta ordaindu ezin zituenak.

400.000ekin nolaz 14,7 milioiko zorrak erosi? Herritar gehienek ez dakiten arren, azalpen erraza du. Herritarrek pagatu ezin dituzten zorrak, kreditu txarteletan, maileguetan edo osasun aseguruetan pilatutakoak, bankuek paketetan bildu eta saldu egiten dituzte bigarren mailako merkatua deituan. Oso merke, sarritan bere prezioaren %5ean. Zorra erosten duten *sarraskijaleek* etekinak ateratzen

Joe Alteriok Strike Debt taldearentzako egindako afixan, herritarrei zorra kitatzea aldarrikatzen duen *Rolling Jubilee* kanpainaren ikurra, elkar laguntzearena. Ingeleseko *bailout* euskaraz “erreskatea” esaten dugu, neologismoa gaztelaniatik harturik. Kanpaina hau herritarrek beste herritarrek erreskatatzeko ahalegin zehatz eta pedagogikoa izan da. Ez da zorpetuak salbatzen saiatzen den karitatezko GKE bat, zorrak esklabotza modernoan daukan garrantziaz jabetzen laguntzea da bere helburua. Zorpetzeari aurre egin nahi diotenentzako *Debt Resisters’ Operations Manual* eskuliburua ere plazaratu du taldeak. George Caffentzisek idatzi du mugimenduaz: “Jubileek ez du pretenditzen finantzetako sistema uzkailetea, ez dauka Wall Street hondoratzeo bala magikoa. Zorpetuei erakusten die elkartasunez askatu daitezkeela zorraren zamapetik eta finantzen industriari legitimitatea kendu”.

dituzte zordunak pertsegitu eta ahalik eta gehien kobratzetik. Hasierako bankuek, aldiz, zorraren parte bat berreskuratzea lortzen dute, txikerra bederen.

Kanpainaren arimetako bat izan den Andrew Ross irakasleak azpimarratu du pedagogia egitea izan dela helburua, 15 milioi dolarreko zor multzoa ez baita handiagoa itsasoan tanta bat dena baino. Nagusiki osasun arazoekin lotutako zorrez osatutako hiru erosketa burutu dituzte.

Creditocracy liburua plazaratu zuen Ross harro dago zorraren mekanika jendeari azaltzeko balio izan duela. “Gutxik dakite beren zorrak merkatuan zein merke saltzen diren, eta jakiten dutenean psikologia aldatzen zaie. Zeren eta kobratzaileak deitzen dizunean, exijituz zure zorra osorik ordaintzea, zuk bada-kizu berak zure zorra oso-oso merke erosi duela”.

Gurpilean harrapatutako saguak

David Graeberrek idatzia du: “Occupy geunden gehienak ginen, batera edo bestera, AEBetako zor sistemaren errefuxiatuak. Mugimendua indartu ahala hasi ginen ohartzen zer den benetan sistema: zorra da aberatsek gainerakoon ondasunak bereganatzeko sistema, hemen bezala munduan”.



Occupy Wall Streeten artean zorraz asko idatzi duen beste bat George Caffentzis filosofoa da, Silvia Federici ekonomialari ekintzailearen senarra. Caffentzis berrikitan Madrid eta Bartzelonatik pasatua da. Haren ideiak interneten bildurik aurkitu daitezke gaztelaniaz bai eskaini dituen elkarriketetan eta bai Auditoria Ciudadana mugimenduak itzuli dion “*Contra la economía de la deuda*” idatzian.

Caffentzisek bere buruaz dio diruaren filosofian dagoela espezializatua. Hona laburbildurik bere analisisa.

Langileek mendeak behar izan dituzte jabegoak eskuratzeko eta horrela bankuen maileguetara jo ahal izateko. Estatuak sustatu zuen

langileek maileguak hartzea, batik bat 1930eko krisi handiaren ondoren, jendeak baretzeko. Eredu hau hazten eta garatzen joan zen 1970eko hamarkada arte. Orduan Estatuak hasi zen hezkuntza eta osasungintza korporazio pribatuen esku uzten; langileek gero eta gehiago beren sakelatik pagatu behar zituzten bi zerbitzuok baina soldat-ak hasi ziren jaisten eta langileei ondasun publikoak zor bihurtu zitzaizkien.

Urteotako neoliberalismoaren ostean jende asko zorpetzen da bizirauteko eta zorpetzeak menpekotasuna dakar, edozer jasateko prest egotea, berdin soldata jaisten badizute. “Bilakatu gara gorpil barruan erotuta korrika gabiltzan

saguak. (...) Sistemak zutik iraungo du langileek zorrenen gorpilean segitzea onartzen duten bitartean. Kapitalismoa formaz aldatzen ari da: badira ekonomialariak esaten dutenak jende masa handi batek ia-esklabo moduan egin beharko dutela lana”.

Caffentzisek ez du maite *middle class* kontzeptua: “Funtsean klase ertaina zorpetze horren emaitza da, hau da, noizbait goiko klasea ukitzera iritsi zitezkeela sinetsi duten langileak. (...) Gaur bizitzako oinarritzko gauzak eskuratzeko zorpetu beharra dago. Dilema bat daukagu: ea nahi dugun dena salerosgai izatea ala zirkuitutik kanpo utziko ditugun oinarritzko beharrak: elikadura, hezkuntza, osasuna eta etxebizitza”.

Rolling Jubilee kanpainak lortu du protagonismoa ematea jendeen zor txikiari. Esan nahi baita, herritar bati bere zorrak zama jasangaitza damaion arren, ikuspegi orokorrekin *mikro* mailan geratzen dela. Zorrenen eztabaidan, aldiz, garrantzia ia beti eman zaio zor *makroari*, eta nagusiki zorpetze publikoari.


“Justizia Globalaren aldeko mugimendua –dio Caffentzisek– 1990eko hamarkadan zentratu zen zor publikoan. Ordua heldu da haren oinordekoak elkarlanean hasi daitezen 2008az geroztik zor mikroaren kontra borrokan hasi berriak diren mugimenduekin”.

Hasiera baino ez da izan 2.693 familia beren zorretatik askatzea. Bertolt Brechten hura eguneratuz: “Zordunak beren zorretatik ez dituzte askatuko beste zordunek baizik”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

